

“Online ikastaroa: eskola kiroleko monitorea”

Aurkezpena

Eskola kirolean izena emanda dauden umeen pertsonal teknikoaren prestakuntza EAEko kirolaren erronka handienetako bat da. Eskola Kirolaren barruan parte hartzeko ibilbidean diharduten entrenatzaileak gaitzeko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundazioak ikastaro hau antolatu du: **Online ikastaroa: eskola kiroleko monitorea**. Lehen edizio hau, bi txandetan antolatuta, EAEko 300 ikasle bakarrik onartuko dira; haietako 135 gure lurraldekoak izango dira.

Hartzaileak

Eskola kiroleko teknikari lan egiten duten pertsonak.

- Ikastaroan parte hartzeko gutxienerako adina: 16 urte.
- Gutxienerako ikasketak: DBH

Betekizun teknikoak

Ikasleek gutxienerako betekizun tekniko batzuk behar dituzte ikastaro hau egiteko: gutxi gorabehera Interneten konektatzeko behar direnak.

Edukiak:

Ikastaroak 45 orduko iraupena izango du; guztiak online egingo dira. Horrez gainera, aurrez ikusita dago 15 ordu egitea praktketan, berariaz jarritako tutore batekin. Izena eman duen pertsonak entrenatzaile diharduen zentro berean egingo dira praktika horiek.

MODULUAK	ORDU KOPURUA		
	Teorikoak (online)	Praktikak	ORDUAK GUZTIRA
KIROLAREN ANTOLAMENDUA ETA LEGERIA	5		5
HEZKUNTZAREN ETA ENTRENAMENDUAREN OINARRI PSIKO-PEDAGOGIKOAK	10	5 (1)	15
KIROLAREN OINARRI ANATOMIKOAK ETA FISILOGIKOAK	15		15
ENTRENAMENDUA	15	10 (1)	25
PRAKTIKAK		30 (2)	
GUZTIRA	45	45	90

(1) Talde-praktikak kurtsoko tutorearekin.

(2) Eskola Kiroleko Programako entrenatzaile zereginetan aritzea.

Metodologia

Metodologia online irakaskuntzan oinarritzen da; baina, saio praktiko batzuk egiten dira ikasitakoa finkatzeko.

Online atalean, baliabide eskusibo batzuk eskainiko dira, ikasleek material didaktikoaren, multimedia-materialen, galde-sorten, eta abarren bidez ezagupenak eskura ditzaten. Arloko adituek sortuko dituzte material didaktikoak, eta aditu horiek arduratuko dira ikastaroa emateaz.

Ikasleek, gako bat sartuta, aukera izango dute ikastaroaren webgunera sartzeko. Han, honako hauek egin ahal izango dituzte:

- Unitate didaktikoetara sartzea
- Material osagarria kontsultatzea (kontzeptu nagusiak, glosategia...)
- Zalantzak irakasleei galdetzea
- Eztabaida eta foroetan parte hartzea
- Galde-sortetara sartzea

Horrez gainera, ikasleek zuzeneko zerbitzu pertsonalizatu bat erabili ahal izango dute uneoro; irakasle laguntzaileak emango du zerbitzu hori, eta ikasleei lagunduko die ikastaroak dirauen bitartean, ahalik eta etekin handiena lor dezaten.

Matrikula egiteko epea eta ikastaroaren hasiera

Matrikula egiteko azkeneko epea txanda bietan azaroaren 20an izango da.

1º Txanda: Kurtsoaren hasiera abenduaren 12an izango da eta otsailaren 26an bukatuko da, azterketa martxoaren 5ean izanez. Berreskurapena, egin behar izatekotan, martxoaren 7an izango da.

2º Txanda: Kurtsoaren hasiera otsailaren 27an izango da eta maiatzaren 13an bukatu da, azterketa maiatzaren 21ean izanez. Berreskurapena, egin behar izatekotan, maiatzaren 21ean izango da.

Inskripzioa egiteko klikatu [hemen](#)

Titulua eta konbalidazioak

Eusko Ikaskuntzak eta dagokion foru aldundiak emandako ziurtagiria, aprobetxamendua egiaztatzeko.

6 ECTS(European Credit Transfer System) kredituen konbalidazioa.

Hizkuntza

Euskara edo gaztelania (aukeratzeko)

Ikastaroaren prezioa

Ikastaroak 100 € balio du; hala ere, 50 € itzuliko dira behin ikastaroa gainditu ondoren.

Honakoa eredu zko kursoa denez, **Bizkaiko Foru Aldundiak 50€ jarriko ditu** kursoa doakoa izan dadin gainditzen dutenentzat.

Informazio gehiagorako horretarako diseinaturiko web orrialdera joan zaitezke, [hemen](#) klikatuz